

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 2010-2011ko Batxilergoko sari bereziak eman dizkie Iruñea, Tutera eta Tafallako lau ikasleri

*Nafarroako hiriburuko Vedruna eta San Ignacio ikastetxeetan, Tuterako Benjamin BHIan eta Tafallako Sancho III el Mayor BHIan ikasten dute*

Jueves, 08 de septiembre de 2011

Iruñea, Tutera eta Tafallako ikastetxeetako lau ikaslek 2010-2011ko Batxilergoko sari bereziak erdietsi dituzte. Sari horiek Nafarroako Gobernuak banatzen ditu ziklo horretako ikasketetan espediente onenak dutenei, joan den irailaren 6ko [Nafarroako Aldizkari Ofizialean](#) jasotzen denez.

Saritutako ikasleak ondorengoak dira: Vedruna ikastetxeko Naiara Salinas Barbosa; San Ignacio ikastetxeko Miguel Angel Nuño Viguria (bi ikastetxeak Iruñekoak); Tuterako Benjamin BHIko Iñigo Zuberdi Lafuente eta Tafallako Sancho III el Mayor BHIko Leire Arbona Puértolas

Bakoitzak lau sari jasoko ditu: 450 euroko aitortpen ofizial eta ekonomiko bat, sari hori egiaztatzen duen diploma bat eta, gainera, gertakari hau beren ikasketetako espedientearen agertuko da. Halaber, ikastetxe publiko batean, goi-ikasketetako lehen ikasturtean ez dute matrikularik ordaindu beharko; horrez gain, Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kirol Ministerioak antolatzen duen Batxilergoko Premio Nazionalaren Sarirako hautagaiak izango dira.

[Deialdi](#) horretan parte hartu ahal izango dute, 2010-2011 ikasturtean zehar Nafarroako ikastetxe batean Batxilergoko ikasketak 8,75 punturekin edo puntuazio handiagoko kalifikazioarekin gainditu dituzten ikasleak.

Sari hori lortzeko, saridunek hiru zatitan banatutako proba bat gainditu behar izan zuten: ikasleak hautatutako hizkuntza, historia edo filosofiako testu baten iruzkina egitea; ikasleak ikasitako atzerriko lehen hizkuntzan testu-azterketa bat egitea; eta gai baten garapena egitea, ikasleak hautatutako bi gaien inguruan galdera eta ariketa praktikoei erantzuna ematea, ikasitako modalitatearen arabera. Probak gaztelaniaz eta euskaraz egin zitezkeen, ikasle bakoitzak bere ikasketak egin dituen hizkuntz ereduaren arabera.